

Urteko oroitza-txostena



Kulturaren Euskal Behatokia



Aurkibidea

Aurkezpena	3
1. IKERKETA, HAUSNARKETA ETA EGIAZTATZEA	4
1.1. Sorkuntza-lantegiak.	4
1.2. Teknologia berriak, digitalizazioa eta kultura-industriak.	4
1.3. Kultura-diplomazia.	5
1.4. Gazteak eta kontsumo berriak.	5
1.5. Kulturaren % 1.	6
1.6. Finantzazio-lerroak.	6
1.7. Irakurketari buruzko ikerketaren koordinazioa.	6
1.8. Joerak.	7
2. INFORMAZIOA KUDEATZEKO SISTEMA	8
2.1. Artxibategien Estatistika.	8
2.2. Finantzazioaren eta gastu publikoaren estatistika.	8
2.3. Arteen eta kultura-industrien estatistika.	9
2.4. Enplegua eta kultura-enpresei buruzko ikerketa estatistikoa.	9
3. KOMUNIKAZIOA ETA HARREMANAK	10
3.1. Behatokiaren emaitzen hedapena.	10
3.2. Ezagutzaren inguruko albisteen hedapena.	11
3.3. Hedatze-, egiaztatze- eta hausnarketa-ekintzak.	11
3.4. Kontsultei eta informazio-eskaerei erantzun.	12

AURKEZPENA

Kultura-behatokien eginkizunari buruzko hausnarketak funtsezko hiru kontzeptutara eramaten gaitu: jarrera, distantzia eta muga. Lehenengo kontzeptuak adierazten du begiratzeko ekintzak berak errealitatean txertatzea eskatzen duela eta, beraz, kokapen horretan behatzailea ez dela neutroa, ezta gutxiagorik ere. Behatokia jaiotzen den unetik errealitatea aztertu, ezagutu eta interpretatzeko asmoarekin jaio da. Horrek abiapuntu bat dakar eta abiapuntu horrek, era berean, behatzen duenarekiko distantzia zehazten du. Kultura-errealitateari nahikoa hurbildu behar zaio, horrek informazioaren xehetasuna hobeto antzemateko aukera emango digulako, baina, era berean, zentzuzko distantzia bat ere gorde behar da, informazioa argitasun nahikoarekin ager dadin. Mugei buruzko eztabaida aipatzen dugunean, halabeharrez, lehentasunak, premiak eta behatzeko gaitasunak aipatu behar ditugu. Beste modu batean esanda, mugak aipatzerakoan, politikak, sektoreak eta ikerketako metodologiak aipatzen ditugu.

Azken batean, behatokiaren eginkizuna informazio baliagarria bildu eta aztertzea da, horri esker, kultura-sektoreei eta kulturari lotutako estrategia politikoak zehazten dituzten arduradunei orientabideak eskaini ahal izateko.

2010ean egindako lanak ildo horri jarraitu dio, estrategiak bideratzeko baliagarriak izan daitezkeen azterketa eta ikerketak egin eta orain arte gutxi aztertu diren esparruen informazio estatistikoa sortzen jarraitu delako; bi lan-mota horiek lagungarriak izan dira EAEn kulturari buruz eskura dugun informazioa zabaltzeko. Metodologiaren ikuspuntutik, 2010ean hasitako proiektuetan ahalegin kualitatiboa indartu da; indartze horrek kulturaren sektoreko gabeziak agerikoak ziren unean Behatokiak martxan jarritako lan-ildoak (oinarrizko estatistikak sortzea) osatu du. Azkenik, aipatu behar da eskuratu dugun ezagutza herritarren eskura jarri dela, argitalpenen bidez, albisteen bidez, buletin bidez, Jardunaldietan eta foroetan parte hartuz, etab.

Sanchez Ferlosiok dioen bezala¹, begiratu gabe berehala ikusteko gaitasuna galdu dugun garaiotan, gure begiradak garbi ikusteko aukera eman diezagula, behintzat.

¹ Sánchez Ferlosio, R. (1993), *Vendrán más años malos y nos harán más ciegos*. Bartzelona: Destino.

1. IKERKETA, HAUSNARKETA ETA EGIAZTATZEA

2010eko jarduera-planean adierazi zen bezala, ekitaldi honetan indartu egin dira kulturari buruzko begirada estrategikoari laguntzera bideratutako azterketak eta ikerketak. Proiektuak burutzeko kultura-eztabaidetan abangoardiako gaiak bilatu, kudeaketa-eredu berriak ezagutu, kultura finantzatzeko beste bide batzuk aztertu eta joera berriak identifikatu dira. Proiektuak garatzeko, berriz, hainbat teknika kualitatibo erabili eta espezialisten jarduerak eta kolaborazioak koordinatu dira.

1.1. SORKUNTZA-LANTEGIAK

Sorkuntza-lantegiak hirien arte-ikerkuntzarako eta kultura-ekoizpenerako politikan txertatu eta bertako sorkuntza-laboregi nagusietako bat bihurtu dira. Era berean, lantegi horiek sortzaile gazte edo berriei zuzendutako politiken atal garrantzitsua ere badira, profesionalizatzeko bidean lehen urratsak emateko aukera aurkitzen baitute bertan.

Sorkuntzarako mintegiak diren heinean, hizkuntza berriei edo diziplinen arteko elkarriketari buruzko esperimentaziorako prestutasun berezia dute. Digitalaren, teknologia berrien eta arte-sorkuntzaren inguruko ikerkuntzarako zentro bultzatzaile bihurtu dira, eta alor horietan guztietan egon daitezkeen aukerabideak frogatzen dira kultura-laboregiotan. Lengoia berriei adi dagoen eta kultura-proposamen berritzaileekiko sentibera den ikuslegoa sortzearen alde ari dira eta, ildo horretan, hedapenean funtsezko eginkizuna dute.

Estatuan (Madrilen, Bartzelonan) eta nazioartean (Berlinen, Londresen, Marseillan) izandako esperientzien ikerketa konparatiboa egin ostean, Euskadin sorkuntza-lantegi bat eratzekeo proiektua aztertzeko funtsezkoak diren hainbat elementu identifikatu dira.

1.2. TEKNOLOGIA BERRIAK, DIGITALIZAZIOA ETA KULTURA-INDUSTRIAK

Teknologia berriek eta eremu digitalak kultura-industrietan duten eraginaren inguruko azterketa egin du Behatokiak. Hain zuzen ere, horixe da azken urteotan kulturaren eztabaida gehien eragin dituen gaietako bat. Eta oraindik ere, duen konplexutasuna dela eta, asko falta da eztabaida hori ebazteko.

Sorkuntza-modu eta eduki berriak sortu dira; negozio-, ekoizpen-, banaketa- eta ustiaketa-ereak aldatuz doaz, finantzazio-formulak ere bai; web 2.0ak eta sare sozialek indartutako komunikazio-prozesuek marketin-estrategiak irauli dituzte; erabiltzaileek bere boterea areagotu dute, kontsumo digitala eta haren erabilerak aldatu egin dira... Horiek guztiak lan horretan jasotzen diren gaietako batzuk baino ez dira eta, guztiak bilduta eta aztertuta, paradigma berri horretarako bidea erraztuko duten jarduerak ireki nahi ditu azterlanak.

1.3. KULTURA DIPLOMAZIA

Gaur egun kultura-diplomazia zer den jakiteko aurrekaririk argiena Joseph Nyeren *soft power*-en aurkituko dugu. Nyek definitzen duenez, Estatu batek bere helburuak betetzeko, herrialde horretako politika, kultura eta idealen aldeko erakarpena eta pertsuasioa erabiltzean datza kultura-diplomazia. Kultura-diplomazia zehazten duen beste elementu bat diplomazia publikoarekiko lotura da; hau da, gobernu batzuek beste herrialde bateko hiritarrei zuzentzeko erabiltzen dituzten ekintzen multzoa.

XXI. mendean kulturak ez dauka ulertzeko modu bakarra eta, aitzitik, konplexutasunean eta pluraltasunean oinarritzen da. Horrexegatik, kultura-adierazpenak eta nortasun anitzak aipatu behar dira; azken batean, "kulturak" pluralean aipatu behar dira. Kontzeptu mutante, aldakor, konplexu horrekin lan egin behar du gaur egun kultura-diplomaziak.

Behatokiak kultura-diplomaziaren kontzeptua eta haren ezarpenak dituen ondorio praktikoak aztertu ditu. Horretarako, alde batetik gaiaren inguruko erreferentzia bibliografikoak begiratu eta, beste aldetik, kasu praktikoak aztertu ditu.

1.4. GAZTEAK ETA KONTSUMO BERRIAK

Gazteen kultura-jardueren azterketa aspaldiko azterketa-gaia da Behatokiarentzat. Ikerketa-ildo hori sustatzeko hainbat arrazoi eta alderdi egon ziren: beste behatoki batzuekin batera ikertu eta ikasitakoa partekatzeko aukera; kontsumo-praktika eta -modu berriak behatzeko aukera; teknologia berriak nolako naturaltasunez barneratzen dituzten; kulturaz zer ulertzen duten, etab. Interneten erabilerak, balioen transmisioan duen eraginak, nerabeen aisialdi digitalak, ... ikerketa kuantitatibo eta kualitatibo asko eragin eta eragiten dituzte. Kasu honetan, elementu horiek guztiek kultura-jardueretan zer eragin duten aztertzea izan da arreta-puntua, orain arte eremu hori gutxi ikertu delakoan.

Azterlanaren ondorioak beste ikertzaile batzuekin partekatu eta eztabaidatu dira Osservatorio Culturale del Piemontek 2010eko irailean Turinen antolatutako IV. Lan Jardunaldietan, hiri horretan Gazteen Urte Europarra ospatzen zela aprobetxatuz.

1.5. KULTURAREN %1

EAEko erakunde publikoek kulturarako % 1 nola ezartzen duten ikusteko azterketa sustatu du Behatokiak. Azterlan horrek EAEko legezko esparrua Estatukoarekin eta Kataluniakoarekin alderatzen du, eta Eusko Jaurlaritzan, zehazki, % 1 arekiko hurbilpena egiten du. Teknika kuantitatibo eta kualitatiboak lotu dira lehen ikuspegi hori eskaintzeko, % 1 hori ezar litekeen funtsen tamainaren inguruan nahiz ezarpen-mailaren inguruko balorazioaren inguruan. Etorkizunean ildo horrek izan lezakeen garapenaren inguruko gomendioak eta proposamenak ere jasotzen ditu ikerlanak.

1.6. KULTURA FINANTZATZEKO LERROAK

Kultura Industrien Kataluniako Institutuak (ICIC) kultura-sektorea finantzatzeko erabiltzen dituen tresnen inguruko informazioa eta balorazioa sistematizatzeko asmoz egin da azterketa hori. Dauden tresna-mota guztiak zehatz aztertzeaz gain (definizioa, sektore eta eragile onuradunak, etab.), indarrean eman dituen urteetan izan duen funtzionamendua eta haren baliagarritasuna ere baloratu dira.

1.7. IRAKURKETA PLANAREN KOORDINAZIOA

Behatokiak EAEko irakurketa-plan bat koordinatu du. Joaquin Rodriguezi, gai horretan aditu eta Salamancako Unibertsitateko Edizioko XI. Masterreko Zuzendariari, eman zion plan hori egiteko enkargua.

1.8. JOERAK

Kontzeptu horretan sartzen dira kulturaren eztabaida sutsuak eragin dituzten gaiei buruzko eta esperientzia berritzaileei buruzko azterketa-lan laburrak. Europar Batasunak kultura-esparruan bultzatutako azterketa-lerroak; Frantziar kultura, berrikuntza eta ikerkuntza

bateratzen dituzten proiektuetan izandako esperientzia, eta 2010ean kultura garatzeko abian jarri zen Creative Scotland zerbitzua bezalako proiektuak ere aztergai izan ditugu. Kulturako joerei emandako multzo honetako gaien zerrenda amaitzeko, amateurren fenomenoak bizi duen eztanda eta Kultura Sailaren Eremuak eta Zinema Euskaraz programak aipatuko ditugu.

2. INFORMAZIOA KUDEATZEKO SISTEMA

Informazio-sistema da Behatokiaren egiturazko oinarrietako bat. Ondorenean, 2010. urtean egindako lau eragiketa estatistikoak zehaztuko dira. Hainbat sektore zuzenean aztertu dira, hala nola Ondarea, arteak eta industriaren sektorea, eta zeharkako beste batzuk, esaterako finantzaketa eta gastu publikoa eta kultura enplegua eta enpresak.

2.1. ARTXIBATEGIEN ESTATISTIKA

Aurtengo urtean zehar burutu da Artxibategien Estatistikaren landa lana da. Lan hori Irargi Euskadiko Agirien Ondarearen Zentroarekin batera egin du Behatokiak. Edizio honetan 302 artxibategik hartu dute parte, publikoak nahiz pribatuak. Azpimarratu behar da EAEn egiten den artxibategien lehen estatistika dela. Azterketaren emaitzak 2011ko lehen hiruhilekoan kaleratuko dira.

2.2. FINANTZAZIOAREN ETA GASTU PUBLIKOAREN ESTATISTIKA

Kultura finantzazioari eta gastu publikoari buruzko Estatistikaren datuak 2011ko lehen hiruhilekoan kaleratuko dira, baina dagoeneko esan dezakegu EAEko Erakunde Publiko nagusiek kulturen egiten duten ekarpen ekonomikoaren eta inbertsioaren magnitudeen ikuspegia eskaintzen digula. Azterlan horren balio eta ekarpen nagusia honako hau da: lehen aldiz, EAEn kulturen egiten den gastu publikoaren ikuspegi orokorra dakarrela.

Informazio asko jasotzen du, erakunde-motaren, gastuaren izaera ekonomikoaren eta gastu horren helburu den kultura-esparruaren arabera sailkatuta.

Erakunde Publikoetako kultura-enpleguari buruzko informazioa ere jasotzen du.

Emaitzen eta datu estatistiko orokorren azterketa-txostenaz gain, ikerketa horretan parte hartu duten 192 eragileek banan-banako fitxak izango dituzte, gainerako erakundeekiko euren egoera zein den ikus dezaten.

2.3. ARTEEN ETA KULTURA -INDUSTRIEN ESTATISTIKA

Arteen eta kultura-industrien estatistika 2010. urteko bigarren seihilekoan jarri zen abian. Lehen urratsa landa-lanaren prestakuntza izan zen, 2010eko amaieran ekin genion, hain zuzen ere, informazio bilketa lanari. Argitalpenen industria (argitaletxeak eta liburutegiak) eta diskoaren salerosketa dira azterlan horren berrikuntza handiak. Parte hartzen duten erakundeek kopurua kontuan hartuta operazio zabala da, eta eskatzen duen informazioaren xehetasuna ahalik eta gehien soildu nahi izan da, kultura-eragileen erantzuna ere ahalik eta gehien erraztearren. Azterketa hori eginez, Behatokiaren helburua oinarritzko informazioa eskuratzea izan da, gero, hari esker, urtero EAEko kultura-sektorearen jarraipena egin ahal izateko, ekoizpenaren, erakusketaren eta merkaturatzearen ikuspegitik. Emaitzak 2011n kaleratuko direla aurreikusten da.

2.4. ENPLEGUARI ETA KULTURA ENPRESEI BURUZKO IKERKETA ESTATISTIKOA

2010eko ekainean aurkeztu zen azterlan horrek EAEn kulturak duen pisu ekonomikoa ezagutzeko aukera ematen digu, hiru funtsezko esparru aztertuta: enpresak, enpleguak eta kulturako profesionalen lan-merkatua.

Azterlan hori Kulturaren Euskal Behatokiak berak sustatutako estatistiken (Arteak eta Industriak), Kultura Sailak sustatutako estatistiken (Liburutegiak, Museoak eta Artisautza) eta beste iturri batzuetatik (Kultura Ministerioa...) eskuratutako informazioaren laburpena da. Gainera, Eustatek (zehazki Jarduera Ekonomikoen Zuzendaritzak), Enplegu eta Gizarte Gaietarako Sailak (Lan Merkatuaren Errolda) eta EINEko Behatokiak (Kontratazioak) emandako beste ekinbide estatistiko batzuen datuak ere ustiatu dira.

3. KOMUNIKAZIOA ETA HARREMANAK

Egindako lanak gizartean oihartzuna izatea eta, aldi berean, sektoreak neurtu eta jasotzen diren ekarpenetatik ikasi nahi bada, komunikazioa funtsezko zeregina da. Helburu horretarako, Behatokiak bide ugari eta osagarriak erabili ditu, bere azterketak kulturako eragile-multzo zabal-zabalaekin partekatu ahal izateko moduan. Atal honetan, 2010ean egindako jarduera-multzoa azaltzen da, labur-labur.

3.1. BEHATOKIAREN EMAITZEN HEDAPENA

2010. urtea emankorra izan da Behatokiaren informazioa eta ezagutza hedatzeari begira. Horretarako hainbat bide erabili dira:

- Argitalpen digitalak: Estatistiken eta Azterketen Bilduma barruan beste bost izenburu erantsi dira. Gainera, urtean zehar egindako hiru ikerlan gehitu dira, bai eta Kultura 08-09 urtekaria ere. Azkenik, Behatokiaren lana jarduera-planean eta urteko oroitza-txostenean islatzen da.
- Adierazle estatistikoen kontsulta dinamikoa: Estatistiken emaitza xehatuak jarri dira bertan, hiritar guztien eskura.
- Kultura Eragileen Direktorioak: Beren identifikazio-datuak argitaratzeko baimena eman eta arte eta industrien Estatistiketan ezarritako baldintzak betetzen dituzten arte eszeniko eta ikusizko arteen eragileen, diskoetxeen eta ikus-entzunezko ekoizleen direktorioa jarri da Behatokiaren webgunean.
- Behatokiaren webgunea: Behatokiak sortzen duen informazioaren biltegia da eta, ondorioz, urtez urte edukiak nabarmen handitu ditu.

3.2. EZAGUTZAREN INGURUKO ALBISTEEN HEDAPENA

2010ean hedabide berriak sortu dira, esate baterako Kulturklik, eta horri esker, azterlanak, jardunaldiak, bibliografia, esperientziak eta abar ezagutzera emateko gunea dauka Behatokiak, kulturaren ezagutzan sakondu nahi duten herritar guztiei irekita.

Maiatzetik aurrera, gainera, *Kulturkaria* buletina hilabetekari bihurtu da; euskaraz eta gaztelaniaz argitaratuta dago eta Kulturklik ataritik kudeatzen da. Azkenik, urte amaieran Kulturkariaren argitalpen berezia egin da lau hizkuntzatan, Behatokiak 2010ean egindako jardunaren berri emateko.

3.3. HEDATZE, EGIAZTATZE ETA HAUSNARKETAKO EKINTZAK

2010ean Behatokiak hainbat mintegitan parte hartzen jarraitu du, kultura ikertzen duten beste erakunde askorekin batera. Halatan, ekainean enplegu eta enpresei buruzko Azterlana aurkeztu zuen Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak Gasteizen antolatutako “Kultura-industriak, sorkuntzako sektoreak eta enplegu-sorkuntzari buruzko Jardunaldietan”.

Irailean, Kulturaren Euskal Behatokia Turinen izan zen, berak parte hartzen duen behatokien sareko IV. Lan Jardunaldietan. Gazteak, kultura eta teknologia berriak aztertzen dituen ikerketa bateratuaren gaineko txostena aurkeztu zuen bertan. Gazteen, politikarien eta ikertzaileen artean izandako eztabaidaren ondorioz, hurrengo ikerketa batzuetarako bide emango duten gaiak atera ziren.

Irailean bertan, Deustuko Unibertsitateak antolatuta, Europako kultura-behaketaren egungo eta etorkizuneko egoera aztertu zuen Think Tankean hartu zuen parte.

Urtean zehar, sektoreko pertsonen arteko (sortzaileak, industrietako ordezkariak eta kudeatzaile publikoak) lan-taldeak eta topaketak sustatu direla ere nabarmendu behar da: halakoan bidez, proiektuak kontrastatu, ezagutza partekatu eta elkarren esperientzietatik ikastea bultzatu nahi da.

3.4. KONTSULTEI ETA INFORMAZIO -ESKAEREI ERANTZUN

2010ean jaso eta erantzundako kontsultak asko eta anitzak izan dira: argitalpen eskaerak, datuak, azterketei buruzko edukiak, bibliografia, kultura estatistikari buruzko argibideak, etab.